

1.Jarduera (ikastalde osoak)

Istorioari sarrera bat idaztea

- Oihanak bere lagunekin egin duen ateraldi bat nahi du kontatu. Emanak diren elementuak baliatuz, erranaldi osoak egin itzazu ateraldi horren aurkezteko.

- ➔ **Noiz?** Igande arratsaldean.
- ➔ **Non?** Tarbes eta Lourdes eskualdean den Arranoen Dorre Nagusian (Donjon des Aigles).
- ➔ **Zer?** Arrano eta harrapari ikusgarri bat.
- ➔ **Nor?** Oihana, bere burasoak eta Alaia bere adiskidea.



Oroit

Istorio bat ahoz kontatzeko, kontatuko duzunaren testuingurua emanaz has zaitez: **tokia**, **mementoa**, hor ziren **pertsonak**, eta zure narrazioaren **gaia** aipa itzazu.

2.Jarduera (taldeka)

Ekintzak ordena kronologikoari jarraikiz kontatzea

- Marrazkiak ordena itzazue eta istorioa konta.



- **Erranaldiak ordena kronologikoari jarraikiz ezar itzazue eta istorioa konta.**

a- Xeilaren aitzinera heltzean, bere eskolako zakua etxean aiantzia zuela ohartu zen.

b- Dutzaren ondotik, katilu bat zereala irentsi zuen.

c- Punpa batez jaiki zen eta bainu-gelara joan zen.

d- Goiz hartan, Kattalin arras fleite onean iratzarri zen.

e- Ondoren, etxetik atera zen ikastolara joateko.

Oroit

Istorio bat kontatzen duzularik, **ordena kronologikoa** jarrai ezazu ontsa ulertua izateko. Istorio batek **hasiera** bat eta **bukaera** bat badu.

3.Jarduera (taldeka)

Nork bere istorioa antolatzea

● **Azpiko istorioa konta ezazu hitzak edo hitz-multzoak hiru zerrendetan hautatuz.**

→ **Denbora antolatzaileak:** berehala, -n bezain laster, gero, ondotik, ondoren, goiz honetan, berantago, bat batean, orduz geroz, geroztik;

→ **Toki antolatzaileak:** bidexkan, etxetik hurbil, eskaileretan, kanpoan, bidean;

→ **Logika antolatzaileak:** orduan, alabaina, izan ere, beraz, zeren, -(e)naz geroz, bait-..., ...(e)lako, hala, hola, horrela, ondorioz, horregatik;



Lasterka atera nintzen. Berantean nintzen. Elur egin zuen. Lerratu nintzen. Erori nintzen. Altxatu nintzen. Eskumuturrean min handia nuen. Etxera itzuli nintzen. Burasoak abertitu nituen.

Oroït

Denbora, toki eta logika antolatzaileak erabil itzazu istorioa hobekiago antolatzeko.

3.Jarduera (gela osoan)

Errepikapenak saihestea

● **Istorioa kontatu ezazue lodiz diren hitzak hitz hauez ordezkatzuz: emazte zaharra, atso tzar, hura, hark, sorgina.**

Aitorrek bere estaiako auzokide duen **emaztea** ez du ikusten ahal (gorrotatzen du). **Emazte** horrek usaia bitxiak ditu: sugeak eta zomorro (intsektu) lazgarri itsusiak hazten ditu. **Emazte hori** beti biziki zakarra da denekin orduan Aitorrek plan bikain bat asmatuko du **emazte** hortaz libratzeko.

Oroït

Izenordainak (hau, hori, hark, horrek...) eta **sinonimoak** erabil itzazu errepikapenak saihesteko (haurra, neskatila, neskatxa, neskatoa, umea...)

Hitz-kutxa

→ **Denbora antolatzaileak:** lehenik, hasteko, gero, ondoren, bat batean, lehen, duela aspaldi, (zerbaitetarik) landa, instant horretan, orduan...

→ **Toki antolatzaileak:** hurbil, ondoan, urrunean, inguruan, bazterrean, zerumugan, han, hemen, hortxe....

→ **Logika antolatzaileak:** orduan, alabaina, izan ere, beraz, zeren, -(e)naz geroz, bait-..., ...(e)lako, hala, hola, horrela, ondorioz, horregatik;

Istorio bat kontatzea

Hiru talde osa itzazue. Talde bakoitzak istorio bat asmatuko du azpiko elementuak baliatuz.

Kasu! Gogoan ukan ontsa ahoskatu eta azkar mintzatu behar duzuela. Ez ahantz istorioa bururaino kontatzea.

A duela aspaldi oihan batean

gizajale bat (ogro bat), neskato bat eta untxi bat

gizajalea gose da




3022an

X97 robota

bi astronauta

berinazko dorre bat

Ziblok planetako bizilagunak



c udako oporretan

familia bat

itsas-bazterrean

marrazo ttipi bat

